

Herriko kantinako barne araudia

Aitzinsolasa

Hazparneko Herriko Etxeak zerbitzu zenbait proposatzen ditu Jean Verdun eskolako ama eskolako eta lehen mailako haurrentzat: eskolaldi inguruko harrera, kantina. Herriko eta inguruko herrietako haur guzientzat JOSTA LEKU aisialdi zentroa ere antolatzen du.

Kantinako zerbitzua herriko zerbitzua da, hautuzkoa, Jean Verdun eskolako haur guziei proposatua.

Araudi honen helburua da izen emate eta zerbitzuaren funtzionamendu arauak finkatzea. Bazkari denbora herriaren ardurapean da.

1. artikulua: Izen ematea

Araudiaren arabera, eta erantzukizun arrazoiengatik, haurra ez da hartuko aitzinetik izena emana ez baldin badu: izena ematea **nahitaezkoa** da, eta Gazte Zerbitzuan eman behar da. Familiei izen emate fitxa bat betetzea galdeginen zaie argibide orokorrak biltzeko, bereziki haurrari buruz, haren familiari eta osasunari buruz.

Fitxa hau komuna da eskolaldi inguruko zerbitzuentzat, aisialdi zentroarentzat eta eskolako kantinarentzat. Alde bateko izen ematea **kontuan hartuko da dosierra osoa izanen delarik bakarrik eta izen ematearen ardura duten langileek ontzat eman eta**.

Gazte zerbitzuak ontzat eman dosierrak familia-atarian sartzeko sarbidea ematen du argibide guziak ikusteko; hauek familiek alda ditzakete behar den aldi guzietan.

Zerbitzuan izena emateak ez du erran nahi haurrak egunero kantinan janen duenik.

Halere, ez da gehiago egunero galdatuko haurrak kantinan janen duenez, baina burasoek aitzinetik izena eman beharko dute zehazteko zein egunetan haurrak kantinan janen duen, hori, familia-atariaren bidez.

Ez da gehiago urtero izena emanen. Haurra eskolara sartzean bakarrik emanen da izena eta argibideak familia-atarian daude. Halere, eguneratuak izateko, burasoek FaLKaren koefiziente dokumentua igorri behar dute urtero familia-atariaren bidez, e-postaz edo han bertan.

Izen ematea urte osoko egiten baldin bada, izen emate fitxa urteko agorrilaren 20a gabe aurkeztu behar da.

Hilabeteko izen ematea eginez gero edo urtean zehar, izen emate fitxa kantinara joanen den eguna baino aste bat lehenago aurkeztu beharko da berantetik, lekuri gelditzen den neurrian: kantinan 104 pertsona jar daitezke. Ikasleak izen emateko ordenaren arabera hartuko dira.

Irakasleek astero badute kantinan izena emana duten haurren zerrenda.

Haur bat falta balitz herriko kantinan, burasoek Gazte Zerbitzuari jakinarazi beharko diote.

Izen emate fitxan aurreikusi bazkari guztiak zor dira, salbu kasu hauetan:

Eskola egunetan:

- Gazte Zerbitzuari idatziz seinalatuko zaiolarik harrera eguneko 8:30ak aitzin.
- Hauraren eritasunagatik, ospitaleratzeagatik edo gertakari larriagatik, mediku-agiri bat erakutsirik edo burasoen ohorean bermatu agiria igorritik Gazte Zerbitzuari 2 egun barne.
- Familiako heriotza, burasoen ohorean bermatu agiria erakutsiz.

Asteazkenetan eta oporraldietan:

- Gazte Zerbitzuari idatziz seinalatuz gehienez 48 oren gabe edo familia-atarian izena kenduz.
- Hauraren eritasunagatik, ospitaleratzeagatik edo gertakari larriagatik, mediku-agiri bat erakutsirik edo mediku agiria igorritik Gazte Zerbitzuari 2 egun barne.
- Familiako heriotza, burasoen ohorean bermatu agiria erakutsiz.

Haur begetarianoentzat edo zerrikerik jaten ez duten haurrentzat, haragia edo zerria duen jaki bakoitzeko alternatiba bat proposatua da. Hautu hori izen emate fitxan seinalatu behar da.

2. artikulua: Harrera Proiektu Indibidualizatua (HPI) duten haurren harrera

2.1 : Mediku-tratamendua duen haur baten harrera

Ez zaio erremediorik ematen ahal haur bati, salbu:

- HPI bat baldin badu eskolako medikuak edota etxeko medikuak emanik
- Hartu beharreko dosiak eta tenoreak zehazten dituen mediku ordenantza bat baldin badu. Erremedioak jatorrizko ontzian izan behar dira, erabilera oharrarekin barnean, baita ere hauraren izena eta deitura ontziaren gainean idatzirik.

Medikuei galdegina zaie erremedioak goizetan edo arratsetan agintzea. Erremedioa eskolaldi inguruko edo eskolaz kanpoko denboran baizik ez badaiteke hartu, hauraren arduraduna egoitzaren barnera jin daiteke haurari erremedioa emateko.

2.2 : Elikadura HPI bat duen haurren harrera

HPI bat duten haurren familiak izen emate fitxan jakinarazi behar dute. Zaintza berezia behar duten haurrak onartuko dira, baldin eta HPI bat baldin badute.

Erregimen berezia duten haurren izen ematea onartuko da etxeko medikuak izenpetu HPI bat izanez gero bakarrik, Gazte Zerbitzuarekin harremanetan. (Kantinarako izenpetu HPI batean eskolaldi inguruko beste jarduera batzuk ere barne har ditzake). HPIrik ez duten haurren kasuan, Gazte Zerbitzuak Eskolaldi Inguruko Harrera Proiektu Indibidualizatua (EIHPI) proposa dezake.

Osasun arazo batengatik erregimen berezi bat duen haur orok burasoek eman bazkaria kantinan janen du. Kasu horretan, barne araudiaren arabera, familia bakoitzak edukiontzi isotermoda (zakua + ontziak) emanen du.

Familiak ekarri bazkaririk ez da onartuko HPI batek baimendu kasuetarik kanpo.

Herriko Etxea erantzukizun orotarik libratzen da haur bat eskolako edota aisialdi zentroko kantinan bazkalduz gero eta elikadura-intolerantzia bat baldin badu eta horretarako HPI bat ez baldin bada plantan ezarri

3. artikulua: Eguerdiko pausaren antolaketa

Eskolako kantinako eskolako egun guzietz irekia da, 11:30etik 13:20era.

Bazkariak bi alditan zerbitzatuak dira.

- Animatzaileek, langile berezituak edo kantinako langileek dituzte haurrak zaintzen; 11:30ean edo 12:30ean bazkaltzen dira. taldeak ikasturte hastapenean finkatuak dira izen emate kopuruaren arabera.
- Ama eskolako hurrek jostaldi bat badute eta ondotik loaldira doaz edo pausamemento bat badute, adinaren arabera.
- Lehen mailako hurrek jarduerak ukan ditzakete: kanpoko jokoak, mahai jokoak, eskulanak, irakurketa, animatzaileen zaintzapean.
- CM2ko ikasleak eguerdi guzietz laguntzen dira Elhuyarreko jangelaraino lehen zubi baten egiteko 6.ean sartu aitzin.

4. artikulua: Fakturazioa eta pagatzeko moldeak

Fakturak izen-emate orrian pagatzaile gisa izendatu haurren arduradunari igorriko zaizkio. Haur batek zerbitzu batean baino gehiagotan izena emana badu, familiak faktura orokor bat errezibituko du altxor publikoaren partez. Altxor Publikoak ditu fakturak egiten. Ordaintzeko epemuga fakturaren gainean zehaztua da. Zor diren zenbatekoak ikus daitezke familia-atarian. Fakturak ordaindu daitezke:

- mandatuz edo biramenduz Altxor Publikoaren kontu korrontean, Jats karrikan, HAZPARNE.
- linean ordainduz plataforma honen bidez: www.tipi.budget.gouv.fr
- txekez, Altxor Publikoaren izenean, Jats karrika, HAZPARNE
- eskudiruz, Altxor Publikoari, Jats karrika, HAZPARNE.

Familiei galdegin finantza parte hartzea baldintzen arabera egokitua da HAZPARNEKO familientzat. Familia-kozientea kalkulatzeko dokumenturik ez baldin bada, familiaren finantza parte hartzea **prezio gorenaren arabera kalkulatu da**.

Baldintza batzuk betez gero, Herriko Etxeak fakturazio aldizkatua plantan ezartzeko parada eskaintzen du bereiziak diren familientzat. Familia horiek fakturazio aldizkatua galdegin behar dute izena ematean.

Faktura eztabaidan ezarriz gero, familiari galdegina zaio Gazte Zerbitzuarekin harremanetan jartzea. Erreklamazioa urte zibil bereko baizik ez daiteke egin. Eskaini zerbitzuaren errealitatea bermatzen duen Gazte Zerbitzua ez baldin bada ados, fakturan agertzen den zenbatekoa zor izanen da.

5. artikulua: Erantzukizuna-Asurantzza

Kantinako denboran, izena emana duten haurrak herriko langileen ardurapean dira.

Hazparneko Herriko Etxeak erantzuletasun zibil asurantzza bat hartua du jardueretarako.

Herriko Etxearen asurantzak ez ditu indibidualki edo haien artean kolpatuko litezkeen haurrak estaltzen Herriko Etxeak ez baldin badu deus ikustekorik. Beraz, burasoei dute haien haurrarentzat asurantzza hartu behar eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko jardueren kariatara, eta familiako erantzuletasun zibil asurantzza duela segurtatu

6. artikulua: Andeatzeak

Eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko egoitzaren edo materialaren andeatze ororen kasuan kalte-ordainak galdeginen dira gertatu andeatzeak ordaintzeko.

7. artikulua: Bakoitzaren puskak

Burasoei galdegina zaie haurrak ez daitezen jin diruarekin, bideo joko kontsolarekin, sakelako telefonoarekin, baliozko gauzeekin...

8. artikulua: Jantziak eta diziiplina

Haur bakoitza manera egokian jantzia izan behar da kantinara joateko.

Haur bakoitzak kantinako langileen aginduak zorrozki errespetatu behar ditu eta lasaitasunean bazkaldu behar du, higiene eta diziiplina arauak errespetatuz. Zaintza-langileak (kantinako langileak, animatzaileak, langile berezituak) errespetatu behar ditu baita ere kideak.

Zaintza-langileek haurrei araudi hau ahoz oroitaraziko die diziiplina-arauak hausten balituzte edo zerbitzuaren funtzionamendu ona trabatzen duten jokamoldeak balituzte.

Arauak hausten segituz gero, eskolaldi inguruko harrerako zuzendaria eta Gazteen eta Hezkuntzaren, ardura duen axuanta haurrarekin eta haren familiarekin elkartuko dira.

Elkarriketa horretan, gaztigu bat ematen ahalko da arau haustearen arabera:

- idatzizko oharra
- aldi bateko kanporatzea
- behin betiko kanporatzea, urte bukaera arte.

Zaintza-langileek dituzte arau haustea egiaztatzen eta kaier batean idazten. Larritasunaren eta gertakari errepikakorren arabera, eskolaldi inguruko zerbitzuko arduradunak edo haren laguntzaileak Zerbitzuen zuzendari nagusia eta Gazteen ardura duen axuanta abisatuko dituzte.

Gertatzen diren arau hauste nagusiak:

- kolektibitateko bizitzako arauen ez onartzea: harrabotsa egitea, ez obeditzea, ohar desegokiak
- ontasunen eta pertsonen ez errespetatzea: jokamolde probokatzaileria edo laidogarria; materialaren andeatze txikiak
- pertsonak mehatxatzea edo ontasunak nahitara andeatzea: eraso fisikoa beste ikasleei edo langileei; materialaren andeatze handiak edo ebastea

9. artikulua: Norberaren irudirako eskubidea

Eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko jardueren kariatara, haur bakoitza argazkitan hartua edo filmatua izan daiteke. Izen emate dosierrean familiak baimena emanaz gero, argazkiak edo beste euskarriak herriaren komunikaziorako baizik ez dira erabiltzen ahaliko (Herriko Etxearen webgunea, herriko kazeta, eskuorriak...). Kontrako kasuan, hauraren irudia lausotuko da.

10. artikulua: Eritasun bat, gorabehera bat edo istripu bat eskolaldi inguruko edo eskolaz kanpoko denboran gertatuz gero

Oharra: Zerbitzuak ez dezake erremediorik edo arta berezi arruntik eman, salbu HPI batek hala aurreikusten badu edo araudi honetako 2. artikuluko argibide guztiak oroitazten dituen mediku-ordenantza bat baldin bada.

Gertakari arin batengatik, zuzendariak edo haren laguntzaileak familiak izendatu arduraduna berehala abisatuko du, eta honek antolatu beharko du ahal bezain fite hauraren xerka jiteko.

Gertakari larri batengatik, istripua izanik ala ez, hauraren osasuna lanjerean edo arriskuan ezarriz gero, zerbitzuak haurra sokorrien esku utziko du ospitalera edo klinikara eraman dezaten. Legezko arduraduna berehala abisatuko da. Horretarako, beti eman beharko du telefono zenbaki eguneratua, harrera zerbitzu denboran deitzeko gisan.

Eskolaldi inguruko harrera baten kariatara, arduradunak eskolako zuzendaria eta eskolako zerbitzua berehala abisatuko ditu haurra ospitaleratu dela.

11. artikulua: Onartzea

Haur batek eskolaldi inguruko egitura batean izena emanaz gero, burasoek araudi hau osoki onartzen dute.